

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERAGOITIKO UDALA

Lan poltsa osatzeko deialdia eta oinarriak, Erriberagoitiko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko, bitarteko izendapenaren bidez

Beharrezkoa da Erriberagoitiko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzea, titularraren erretiroa dela eta.

ALHAOn argitaratu da, 2024ko apirilaren 3an (38. zenbakia), estaturako gaikuntza duten toki administraziooko funtzionarioentzat gordetako udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko deialdia, behin-behineko izendapenaren, zerbitzu eginkizunen edo metaketaren bidez, eta jendaurrean egoteko epean eta orain arte ez da jaso estaturako gaikuntza duen ezein funtzionarioen eskabiderik.

Eusko Jaurlaritzaren lan poltsako kideen artean ere ez dago hautagairik.

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 10. artikulua 2. puntuan ezartzen duenez, "bitarteko funtzionarioak hautatzerakoan prozedura bizkorak erabili behar dira, betiere, berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publikotasun printzipioak estu errespetatuta".

Estaturako gaikuntza duten toki administraziooko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen 128/2018 Errege Dekretuaren 53. artikulua 1. atalaren arabera: "Estaturako gaikuntza duten toki administraziooko funtzionarioek gordetako lanpostuak betetzea ezinezkoa denean, eta urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 10.4 artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe, toki korporazioek bitarteko funtzionario bat izendatzea proposatu ahal izango diote autonomia erkidegoari, berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate printzipioak errespetatuta, eta bitarteko funtzionario horrek A1 azpitaldean sartzeko eskatzen den titulazioa izan beharko du".

Egun honetan, ebatzi dut onestea Erriberagoitiko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua aldi baterako betetzeko deialdia eta oinarri arautzaileak, l. eranskinaren arabera, bitarteko izendapena egiteko, aldezturik merezimendu lehiaketaren bidez hautaketa bat eginda eta lan poltsa bat osatuta.

Pobes, 2024ko irailaren 9a

Alkatea

JAVIER GALLEGU RODRÍGUEZ

**Erriberagoitiko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua merezimendu
lehiaketa eta bitarteko izendapen bidez betetzeko hautagaiak
hautatzeko eta lan poltsa osatzeko oinarri arautzaileak**

Lehenen. Deialdiaren helburua

Deialdi honen xedea da Erriberagoitiko Udaleko idazkaritza kontu-hartzaile lanpostua bitarteko izendapen bidez betetzeko lan poltsa osatuko duten hautagaiak hautatzea, merezimendu lehiaketa bidez.

Lan poltsa osatzeak ez du esan nahi, nahitaez, bitarteko izendapena egingo denik, eta hautaketa prozedura honetatik erator daitekeen izendapenak ez du inola ere ekarriko karrerako funtzionario izaera aitortzea.

Nolanahi ere, administrazioak ofizioz formalizatuko du bitartekotasun harremanaren amaiera, honako arrazoi hauetako edozeinengatik, eta bitarteko funtzionarioak ez du konpentsaziorik jasotzeko eskubiderik izango:

- a) Lanpostua araututako eran karrerako funtzionarioek betetzeagatik, lege ezarritako edozein prozeduraren bidez.
- b) Esleitutako lanpostua kentzea edo amortizatzea eragiten duten antolaketa arrazoiengatik.
- c) Izendapena eragin zuen arrazoiak amaitzeagatik.

Nolanahi ere, bitarteko funtzionarioak izendatu eta hiru urtera, bitarteko harremana amaitu egingo da (Enplegatu Publikoaren Oinarritzako Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 10.4 artikulua).

Bigarrenen. Lanpostuaren ezaugarriak

Honako hau bitarteko langileen bidez betetzeko merezimendu lehiaketarako deialdia egiten da:

Lanpostuaren izena eta mota: idazkaria, 3. mota.

Azpieskala: idazkaritza-kontuhartzaila.

Taldea: A1

Destino-osagarria: 25.

Berariazko osagarria: 28.569,49 euro urtean.

Hizkuntza eskakizuna: 4.a (C2); derrigortasun data: 2015eko urtarrilaren 1a.

Hirugarrenen. Izangaiek bete beharreko baldintzak

a) 16 urte beteta izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina ez gainditzea.

b) Espainiar nazionalitatea izatea.

c) Titulazioa: gradu unibertsitate titulua (edo baliokideak: lizentziatura, ingeniartza, arkitektura) lortzeko eskubideak izatea edo ordainduta izatea. Atzerrian titulua lortu duten izangaiek dagokien homologazio kredentziala eduki beharko dute, edo, hala badagokio, baliokidetasun ziurtagiria, bai eta profilarena ere.

d) Bete beharreko lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala izatea, eta eginkizun horiek betetzea eragozten duen gaixotasunik edo akats fisiko edo psikikorik ez izatea.

e) Diziplina espediente bidez baztertuta ez egotea herri administrazioen edo autonomia erkidegoetako organo konstituzionalen edo estatutuen arabeko organoen zerbitzutik, eta ez egotea epai bidez erabat edo bereziki desgaituta enplegu eta kargu publikoetan aritzeko ez funtzionario kidego edo eskalan sartzeko, ez eta, langile lan kontratudunen kasuan, baztertu edo

desgaitutako lanpostuan egiten zituzten antzeko egitekoetan aritzeko ere. Desgaituta edo horren pareko egoera batean ez egotea, eta beste estatu batean egoera berean egonda enplegu publikora iristeko eragozpen izango litzatekeen diziplinazko zehapenik edo horren parekorik ez izatea.

f) Ezintasuneko edo bateraezintasuneko legezko auziren batean sartuta ez egotea

g) C2 (edo C1, epigrafe honetan adierazitako salbuespen kasuetan) hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izatea. Hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko, Euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretua hartuko da kontuan, bai eta Euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzeari eta euskarazko hizkuntza titulu eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuesteari buruzko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretua ere.

Bat etorri Euskararen erabilera Euskal Sektore Publikoan normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuaren 37.4 artikuluan jasotakoarekin, C2 hizkuntza eskakizuna duten eta derrigor-tasun data igarota duten lanpostuak hautatu eta betetzeko prozesuetan, hautagaietako batek ere egiaztatzen ez badu, lanpostu horri nahitaezko C1 hizkuntza eskakizuna aplikatuko zaio, hautaketa edo hornikuntza deialdi horretan betetzeko soilik.

Hautagaiari bakarrik dagokio egiaztatzea, eta ez dago aurreikusita hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko probak egitea.

h) Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko eskalako karrerako funtzionarioek ezin izango dute parte hartu, haien azpieskala eta administrazio egoera edozein izanda ere.

Eskaerak aurkezteko epea amaitzen den unean bete beharko dituzte izangaiek aipatutako baldintzak, eta proposatutako hautagaiak baldintza horiek bete beharko ditu oraindik ere izendapenaren unean.

Laugarrena. Eskaerak

Oinarri hauen eranskinean adierazitako ereduaren arabera eskaerak Erriberagoitiko Udaleko alkateari zuzendu behar zaizkio: Araba kalea 2, 01420 (Araba). Horretarako, bost egun balioduneko epea izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Aurrez aurre aurkeztu ahal izango dira, Erriberagoitiko Udaleko erregistro orokorrean, jendaurreko egun eta orduetan: astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara. Udalaren egoitza elektronikoaren bidez ere aurkeztu ahal izango dira:

<https://udalenegoitza.araba.eus/experta/erriberagoitia>.

Era berean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak 16. artikuluan ezartzen dituen tokietako edozeinetan ere aurkeztu ahal izango dira.

Ezinbesteko baldintza da eskaerarekin batera sartzeko baldintzak eta alegatutako merezi-menduak betetzen direla egiaztatzen duten agirien kopia aurkeztea (NANa, graduako titulua eta gidabaimena).

Bosgarrena. Hautagaiak onartzea

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, lehendakariak ebazpena emango du, behin-behinean onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda onartutzat emanda. Ebazpen hori udaletxeko iragarki taulan eta Erriberagoitiko Udalaren egoitza elektronikoan argitaratuko da, eta baztertzeko arrazoia adieraziko da. Ebazpen hori automatikoki behin betiko bihurtuko da, baldin eta baztertutako hautagairik ez badago edo, izangaia izan arren, zerrenda jendaurrean jarri eta bost egun balioduneko epean alegaziorik aurkezten ez badute.

Onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onartzen duen ebazpenean, edo behin-behineko zerrenda behin betikotzat jotzen duen ebazpenean, epaimahai kalifikatzailea non eta noiz eratuko den eta nork osatuko duen zehaztuko du epaimahaiburuak.

Seigarrena. Hautaketa prozesuaren deskribapena

Hautaketa prozesua lehiaketa bat izango da, eta honako merezimendu hauek baloratuko dira:

A) Azken bost urteetan idazkaritza-kontuhartzailletza azpieskalako hautaprobetako ariketaren bat gainditzeagatik, 3 puntu. Eskatzaileak, izena emateko epean, proben deialdia egin duen organoaren ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko du hori, gainditutako ariketa eta hura egin zen eguna identifikatzeko datu guztiak adierazita.

B) Esperientzia. Gehieneko puntuazioa, 6 puntu.

Idazkaritza-kontuhartzailletza azpieskalan estaturako gaikuntza duten toki administraziooko funtzionarioentzat gordetako lanpostuetan organo eskudunak bitarteko langile edo aldi baterako langile izendatuta lan egindako hilabete oso bakoitzeko: 0,1 puntu.

Estatuko, autonomia erkidegoetako edo toki erakundeetako administrazio orokorreko kidego orokorretako edo eskaletako A taldean, A1/A2 azpitaldetan sailkatuta dauden beste azpieskala batzuetako funtzionarioentzat gordetako edo estaturako gaikuntza duten funtzionarioentzat gorde ez diren administrazio publikoetako funtzionario lanpostuetan izandako esperientzia hilabete oso bakoitzeko: 0,05 puntu hileko. Kidego berezietan edo administrazio bereziko eskaletan emandako zerbitzuak onartuko dira, baldin eta horietara sartzeko eskatzen den titulazioa zuzenbidezkoa bada.

Lan egindako aldien kopurua batuko da, eta hilabete baino gutxiagoko aldiak baztertuko dira. Ondorio horietarako, 30 egun naturalek osatuko dute hilabetea.

Dagokion toki erakundeko idazkaritzak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da lanbide esperientzia, autonomia erkidegoetako edo foru aldundietako organo eskudunak emandako izendapenaren egiazko edo jatorrizko kopiarekin batera, estaturako gaikuntzako lanpostuetarako izendapenen kasuan, eta, gainerako kasuetan, aurreko zerbitzuak eman ziren administrazioaren zerbitzu ziurtagiarekin batera.

Ziurtagirietan, lanpostuaz jabetzeko data, kargu uztearen data, taldea, azpitaldea, eskala eta zerbitzu aldia jaso behar dira, azken hori egunetan, hilabeteetan eta urteetan adierazita.

Ez dira baloratuko baloratutako beste batzuen aldi berean egindako zerbitzuak.

C) Tituluak. Gehieneko puntuazioa, 4 puntu.

Lanpostuen eginkizun bereziak direla eta, honako titulu akademiko hauetakoren bat izatea baloratuko da edo eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean titulu horiek lortzeko baldintzak betetzea, titulazio hauetako bakoitzeko puntuazio honen arabera:

– Zuzenbideko Gradu titulua (MECES 2): 2 puntu.

– Gizarte eta lege zientzien jakintza adarrari buruzko esparru hauetako beste titulu batzuk (MECES 2): administrazioa eta kudeaketa publikoa, zientzia politikoak, soziologia, ekonomia, enpresen administrazioa eta zuzendaritza, berrikuntzaren administrazioa eta kudeaketa, finantza ekonomia eta ekonomia aktuariala, lan zientziak, lan harremanak eta giza baliabideak: 0,5 puntu.

– Zuzenbideko master ofizialaren titulu bakoitzeko (MECES 3): puntu 1.

Aipatutako ikasketa eremuei dagozkien graduak edo lizentziaturak unibertsitateen arloan eskumena duen ministerioaren titulazioen atalean jasotakoak izango dira.

Zuzenbideko lizentziaturek (MECES 3) 3 puntu jasoko dituzte, eta aipatutako gainerako ikasketak arloei buruzkoak, 1,5 puntu.

Atzerrian lortutako titulazioen kasuan, dagokion homologazioa lortu beharko da, urriaren 18ko 889/2022 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera (889/2022 Errege Dekretua, urriaren 18koa, atzerriko hezkuntza sistemetak unibertsitate irakaskuntzak homologatzeko, baliokidetasun adierazpenerako eta baliozkotzeko baldintzak eta prozedurak ezartzen dituen, eta aurreko antolamendu akademikoetako unibertsitate titulu ofizialak goi mailako hezkuntzako kualifikazioen Espainiako esparruaren baliokidetzat ezartzeko prozedura arautzen duena).

D) Ikastaroak eta masterrak. Gehieneko puntuazioa, 2 puntu.

Azken hamar urteetan lanpostuarekin zerikusia duten ikastaroak edo masterrak egin izanagatik. Ikastarook, zuzenean eta ez zeharka, administrazio zuzenbideari, kontratazio publikoari, administrazio publikoetako langileei, administrazio publikoen ondasunei, toki araubideari, tokiko finantza eta zerga zuzenbideari, ekonomia eta finantza kudeaketari, aurrekontuei eta kontabilitate publikoari edo hirigintzari eta ingurumenari buruzkoak izan beharko dute, eta Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak edo administrazio publikoen mendeko beste prestakuntza zentro ofizial batzuek, unibertsitate publiko edo pribatuak eta elkargo ofizialek emanak edo homologatuak.

- 749 ordutik gorako unibertsitate ikastaro edo titulu propio bakoitzeko: 0,6 puntu.
- 500-749 orduko unibertsitateko ikastaro edo titulu propio bakoitzeko: 0,4 puntu.
- 100-499 orduko unibertsitateko ikastaro edo titulu propio bakoitzeko: 0,2 puntu.
- 25-99 orduko unibertsitateko ikastaro edo titulu propio bakoitzeko: 0,1 puntu.

Bestelako jarduerak, hala nola jardunaldiak, mahai inguruak, topaketak, eztabaidak edo antzekoak, ez dira baloratuko.

Ikastaroen iraupena ECTS kredituetan bakarrik adierazten bada, kreditu bakoitzeko 25 ordu zenbatuko dira.

Iraupena ECTS ez diren kredituetan bakarrik adierazten bada, kreditu bakoitzeko 10 ordu zenbatuko da.

Masterrak eta prestakuntza ikastaroak egiaztatzeko, dagokion unibertsitatearen ziurtagiria edo tituluaren kopia aurkeztu beharko da, programarekin batera. Ez dira baloratuko iraupen orduen, kredituen edo programaren berri ematen ez duten prestakuntza ikastaroak. Karrera, gradu edo master ofizialetan sartzen direnak ere ez dira baloratuko. Egiaztagiriek eskaerak aurkezteko epea baino lehenagoko data izan behar dute.

Epaimahai kalifikatzaileak merezimenduen behin-behineko balorazioa jasotzen duen zerrenda onartuko du eta Erriberagoitiko Udalaren eta egoitza elektronikoaren iragarki tauletan argitaratuko du, puntuazioaren arabera ordenatuta.

Merezimenduen balorazioan puntuazio bera lortuz gero, honako irizpide hauek aplikatuko dira hurrenez hurren:

- Azken bost urteetan idazkaritza-kontuhartzailatza azpieskalako hautaprobetako ariketaren bat gainditu izana.
- Puntuazio handiena esperientziaren atalean.
- Puntuazio handiena titulazioen atalean.
- Puntuazio handiena Ikastaro eta masterren atalean.
- Zuzenbideko Gradua (edo lizentziatura) izatea.

Irizpide horiek aplikatuta oraindik ere berdinketak badirau, abizenen hurrenkera alfabetikoaren arabera ebatziko da, Estatuko Administrazio Orokorreko hautaketa prozesuetan izan-gaien jardun ordena zehazteko egindako azken zozketan Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako letratik abiatuta. Ondorio horietarako, lehenengo abizenak aurretik preposizioa edo preposizioa gehi artikulua —«de», «del» edo «de la(s)»— badarama, interesdunek idazteko duten modua edozein dela ere, alfabetatzeko, elementu horiek izenaren ondoren sartuko dira, minuskulaz.

Izangaiek bost egun balioduneko epea izango dute alegazioak egiteko. Epe hori amaituta, epaimahaiak hautaketa prozesuaren behin betiko balorazioaren zerrenda argitaratuko du.

Zazpigarrena. Zerrendaren kudeaketa

Behin betiko balorazio zerrendaren arabera gutxienez 2 puntu lortu dituzten hautagaiek osatuko dute lan poltsa.

Alkatearen ebazpen bidez lan poltsa onetsi ondoren, udalak kudeatuko du, hartan ezarritako ordenaren arabera, eta Erriberagoitiko Udalaren egoitza elektronikoko eta udaletxeko iragarki tauletan argitaratuko da.

Poltsa indarrean dagoen bitartean lanpostua betetzeko beharra bada, lan poltsako pertso-nei eskainiko die lanpostua epaimahaiburuak, lan poltsan duten hurrenkera errespetatuz, eta hiru egun balioduneko epe komuna emango die eskaintza onartu edo baztertzeko. Epe horiek eskaintza Erriberagoitiko Udalaren egoitza elektronikoko ediktu taulan argitaratu eta postuaren eskaintza jasotzen duen posta elektronikoa bidali eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko dira.

Zortzigarrena. Dokumentuak aurkeztea

Lan poltsan puntuazio onena lortu duen eta izendapena proposatu zaion hautagaiari deia egin ondoren, hiru egun balioduneko epean, toki erakundeak izendapen proposamena helarazten dionetik zenbatzen hasita, deialdi honetan eskatutako gaitasun eta betebeharrak eta hautaketarako baloratu ziren alegatutako merezimenduak egiaztatzen dituzten jatorrizko dokumentuak aurkeztu beharko ditu, bai eta zinpeko adierazpen bat ere, honako hauek jasotzen dituen: ezintasun edo bateraezintasun kausaren batean ez dagoela eta diziplina espediente bidez ezin administrazio publikotako zerbitzutik bereizita ez dagoela. Horrez gain, eginkizunak normaltasunez betetzea eragozten dion gaixotasunik edo akats fisikorik ez duela egiaztatzen duen ziurtagiria ere aurkeztu beharko du.

Adierazitako epearen barruan, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, izangaiak ez baditu eskatutako baldintzak egiaztatzen, ondoriorik gabe geratuko dira bere jardun guztiak, eskaeran datu faltsuak jartzeagatik izan lezakeen erantzukizunari kalterik egin gabe. Halakoetan, alkateak, puntuazio hurrenkeraren arabera, onartu duen hurrengo izangaia izendatzeko proposamena egingo du.

Lan poltsatik kanpo geratzeko zioa izango dira hautagaiak lan poltsan parte hartzeari uko egitea, zortzigarren oinarriak eskatzen duen dokumentazioa epe barruan ez aurkeztea, lanpostuaz ez jabetzea eta eskainitako lanpostua betetzeari uko egitea, salbu eta, azken kasu horretan, arlo publikoan edo pribatuan lanpostu bat betetzen ari dela egiaztatzen bada edo osasun agiri ofizialen bidez egiaztatutako gaixotasuna badago.

Bederatzigarrena. Lan poltsaren indarraldia

Lan poltsak 36 hilabeteko indarraldia izango du, onartzen denetik zenbatzen hasita.

Nolanahi ere, deialdi bakoitzaren aurretik egiaztatu beharko da ez dagoela lanpostua behin-behineko izendapenaren, zerbitzu eginkizunen edo eginkizun metaketaren bidez betetzeko interesa duen karrerako funtzionarioik.

Hamargarrena. Epaimahaia eta oinarriak interpretatzea

Epaimahaia honako hauek osatuko dute: epaimahaiburuak, kideak eta kide-idazkariak (hitza eta botoa izango dute guztiek), eta horien ordezkoeak (A taldeko karrerako funtzionarioak).

Epaimahaiaren izendapena toki erakundeko lehendakariaren ebazpen bidez onartuko da, izangaien behin betiko zerrenda argitaratzen denean, eta batera argitaratuko da.

Izangaiek epaimahaiko kideak errefusatu ahal izango dituzte, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan eta indarrean dauden gainerako xedapenetan jasotako inguruabarrak gertatzen direnean.

Epaimahaiak ahalmena du agertzen diren zalantzak ebazteko eta lehiaketaren ordena onari eusteko beharrezko erabakiak hartzeko; oinarri hauetan jaso ez den guztian, gaiari buruz indarrean dagoen legeria aplikatuko da.

Deialdia, haren oinarriak eta oinarrietatik eta epaimahai kalifikatzailearen jardunetik eratorritako administrazio egintza guztiak aurkaratu ahal izango dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8., 14. eta 46. artikuluetan jasotako kasuetan eta moduan.

ERANSKINA

Interesdunaren eskaera

Interesdunaren datu pertsonalak eta jakinarazpenetarako helbidea (nahitaezkoak):

Izen-abizenak:

IFZ:

Helbidea:

Posta kodea:

Udalerrria:

Probintzia:

Jakinarazpen elektronikoa (halakorik izanez gero)

Gaitutako helbide elektronikoa:

Telefono finkoa edo mugikorra (nahitaezkoa):

Posta elektronikoa (nahitaezkoa):

Adierazten dut(e) ko zenbakiko ALHAOn Erriberagoitiko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko lehiaketaren deialdia dela eta iragarritako deialdiaren berri izan dudala.

Eta honako hau adierazten dut, neure ardurapean:

Espainiako nazionalitatea dut, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 57. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.

Zereginak betetzeko gaitasun funtzionala dut.

Gutxienez hamasei urte ditut eta ez dut derrigorrezko erretirorako gehieneko adina gainditu.

Ez nago diziiplina espediente bidez baztertuta administrazio publikoen edo autonomia erkidegoetako organo konstituzionalen edo estatutuen arabeko organoen zerbitzutik, eta ez nago epai bidez erabat edo bereziki desgaituta enplegu eta kargu publikoetan aritzeko ez funtzionario kidego edo eskalan sartzeko, ez eta, laginle lan kontratuduna izanik, baztertu edo desgaitutako lanpostuan egiten nituen antzeko egitekoetan aritzeko ere. Beste estatu bateko herritarra izanik, ez nago desgaitua edo horren pareko egoera batean, eta nire estatuan egoera berean egonda enplegu publikora iristeko eragozpen izango litzatekeen diziplinazko zehapenik edo horren parekorik ez dut.

Eskatutako titulazioa eta hizkuntza eskakizuna ditut.

Horregatik guztiagatik, bat etorri urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 55. eta 56. artikuluetan xedatutakoarekin, udal horretako idazkaritza-kontuhartzaile lanpostua betetzeko bitarteko funtzionarioak hautatzeko prozesuan onartua izateko eskatzen dut.

Data eta sinadura:

Nire erantzukizunpean adierazten dut emandako datuak egiazkoak direla.

....., 20....(e) koaren(a)

Eskatzailea.

Oharra: Eskaera honekin batera, eskatzen diren betekizunak eta alegatzen diren merezimenduak egiaztatzen dituzten dokumentuen kopia aurkeztu behar da, bai eta aurkeztu diren dokumentuen aurkibidea ere.

Eskaera Erriberagoitiko alkateari zuzendu behar zaio eta oinarrietan adierazitako posta helbidera edo egoitza elektronikora bidali.